

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/6/4 | 325

| | |
|---|---|
| ☉ | UEMA eguna Mallabian |
| ☉ | Ilargi Coupage |
| ☉ | Mintzalagunekin mintzatzen |
| ☉ | Altzora oinez joateko aitzakia |
| ☉ | Amezketar bat amezketar bati buruz hizketan |
| ☉ | Anoetako xakelariak bikain |



Ekainak 13
Eskola txikien festa
Altzon

Ikertzaileak eta berritzaileak gara, ikasteko eredu propioa daukagu...

desberdinak gara! Arrazoi gehiago behar dituzu?

MATRIKULA ZAITEZ MONDRAGON UNIBERTSITATEAN!

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa
Biteri Ikastetxe Nagusia

ARRASATE
EKAINAK 12 larunbata - 11:00

etorri aurretik izena eman!

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Barceló

Costa Vasca

wellness & fitness

Barceló Costa Vasca

pertsonako

32 €

BAZKARI EDO AFARIA + UR ZIRKUITOA + FITNESS
Asteleheneretik ostiralera, jai egunak izan ezik. uztailaren 31arte. %7-ko bez-a barne

pertsonako

38 €

BAZKARI EDO AFARIA + UR ZIRKUITOA + FITNESS
Larunbat, igande eta jai egunetan. uztailaren 31arte. %7-ko bez-a barne.

Ongizate Zentruan aurrez erreserba egitea beharrezkoa da.

ERRESERBAK:
Wellness & Fitness
Recepción Wellness & Fitness Barceló Costa Vasca

Tel. +34 943 317 950
costavasca.wellness@barcelo.com



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria deon banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Mahai-ingurua: Inoiz baino indartsuago, inoiz baino elkartuago

Eskola Txikiak hizpide izan dira azken urte honetan, batez ere Larraul, Itziar eta Zubietako kasuen berri iritsi zaigu komunikabideetatik. Isabel Ceelaren hezkuntza sailak entzungor egiten die irakasle guraso eta udalen eskaerei, eta hori gutxi balitz aurreko gobernuarekin hitzartutako gauza asko atzera bota dizkiete.

8-11. orrialdeak

Nire abiapuntua beti errealiatea da. Gero, erralitate hori nora eramaten dudan beste gauza bat da. Ez dagokion tokian dagoen bati buruz da liburua. Hori hain ohikoa da gaur egun... Egoera horrek barne gatazka eta inguruarekiko gatazka sortzen dio pertsonari. Egoera hori oso aberatsa da idazteko

Elkarrizketa: Yurre Ugarte

16-18. orrialdeak

| | | |
|--|--|-------|
| | Iritzien leihoa: Garbiñe Biurrun eta Jone Otxoa-Aizpurua | 4-5 |
| | Normalizazioa: UEMA eguna Mallabian | 6-7 |
| | Eskualdeko albisteak: Ilargi Coupage ekainaren 7tik 13ra | 12-13 |
| | Eskualdeko albisteak: Mintzalagunekin mintzatzen | 14-15 |
| | Bidean: Altzora oinez joateko aitzakia | 19 |
| | Kultura: Amezketar bat Fernando Amezketarrari buruz | 20-21 |
| | Kirol saltsa: Anoetako xakelariak bikain | 22-23 |

Euskal Herria-Brusela-Euskal Herria



Garbiñe Biurrun
Epailea

4 Martxoaren 29an gure artean horren ezaguna bihurtu den Brian Currin abokatu hegoafrikarrak "Bruselako Adierazpena" aurkeztu zuen, baina horren atzean ez zegoen bakarrik, nazioarteko beste hogeita buruzagi eta adituren babesa baitzuen (haien artean, Nelson Mandela Fundazioa, Desmond Tutu, Christopher Mitchell eta Frederik De Klerk).

Adierazpenean, labur esanda, ezker abertzaleak proposatutako urratsak eta hartutako konpromiso publikoa helburu politikoak bide politiko eta demokratikoak bakarrik erabiliz lortzeko goraipatzen dira eta ETArri eskatzen zaio konpromiso horrekin bat egin dezan, su-eten iraunkor eta benetan egiaztatzeko moduko bat emanda. Bestalde, Gobernua, behar bezala erantzutea eskatzen zaio desberdintasunak konpontzeko eta bake iraunkorra lortzeko.

Horrelako Adierazpen eta konpromisoek harrera ezin

hobea jaso beharko lukete gure herrian. Baina ez da horrela gertatzen, ez erabat behintzat. Oraindik ere batzuek, Bruselatik datorkigun itxaropena ilundu egin nahi dute, Currin ez dela inor honetaz mintzatzeko, euskal errealitatea ez duela ondo ezagutzen eta ezker abertzalearen defendatzailea dela esanez. Nik ez dakit hau guztia noraino den egia, baina argi dago Currinek zerbait badakiela: hemen arazo larri bat dugula (beste arazo batzuren artean) eta bere lana eta bere izena jarri ditu hori konpon ahal iza-

teko. Nik biziki eskertzen diot bere lana.

2006. urtean ezagutu nuen Brian Currin, John Carlinekin batera. Gasteizen izan zen, ekainean. "Jueces para la Democracia"ko urteroko Estatu mailako Kongresua ospatzen ari ginen, su-etenaren garaia zen. Currin eta Carlin zeuden gonbidatuta gure Kongresuan ospatu behar zen gatazken konponketari buruzko mahai-inguru batean parte hartzeko. Biak mintzatu ziren Hego Afrikaz, baina ez bakarrik horretaz; egia esan bizitzaz eta bakeaz mintzatu ziren eta horiek lortzeko egin behar diren saiakeretaz.

Beraz, badakit zertaz ari den Brian Currin eta berarekin batera Bruselako Adierazpena sinatu duten beste pertsona ospetsu horiek. Badakite gure egoera jasanezina dela (nahiz eta hemen batzuek pentsatu ez dela horren gaizki bizitzaren), baina bideragarria eta konpongarrira ere bai. Badakit lehen ere jende asko saiatu dela gure arazo santu honekin bukatzen, baina egia da aurrean beste aukera berri bat dugula eta ezinbestekoa dela oraingo honetan lortzea.

Bruselatik etortzeak ez dio inolako garrantzirik kendu behar proposamen honi. Gure artean babestu behar dugu; azken finean Euskadi (Euskal Herriatik) sortutako behar bati erantzuten dio eta guregana dator berriro ere: hemendik honako, Bruselatik pasatuz. Currin, Mandela eta besteak,

hemengo hainbat jendekin batera. Horretarako, laguntza aktiboa behar da, Adierazpen hori gureganatzeko eta bertan aldarrikatzen dena denon lorpena izateko. Horretarako, Lokarri Bruselako Adierazpena ezagutzera eman nahi du mahai-inguru ziklo baten bidez eta atxikimenduak biltzen ari da.

Nik eman dut nire atxikimendua: bat nator indarkeriak gure artetik desagertu behar duela; bat nator horretarako indar asko eta handiak behar direla; bat nator indarrak handiena gizartearena dela; bat nator ni ere gizarte honen partaide naizela; bat nator nire laguntza ezinbestekoa dela; bat nator lehenbailehen sentitu nahi dudala bakearen usain freskoa.

Badakit baita ere bakea lortzen badugu ez dela Bruselako Adierazpenaren lorpena bakarrik izango. Aurretik pertsonak eta talde askok egin duten lana handia izan da: indarkeriaren aurkako lana, askatasunaren aldeko lana, pertsona guztion duintasunaren eta eskubideen aldeko lana. Hori guztia dago sartuta poltsa honetan; lan horri esker daukagu bakea gero eta gertuago.

Oraingo honetan lortzea nahi nuke. Badakit posible dela eta denon eskuak eta bihotzak behar direla. Oraingoan lortzen bada, nik ez dut kanpoan geratu nahi: lorpen horren protagonista izan nahi dut. Zuek ere izatea nahi nuke.

Denok bake egileak!



Maindire beltza soinean

Gauza asko datozkit burura. Eta ezer garbirik ez. Ideia kontrajarri ugari. Eta ezer argirik ez. Baina han eta hemen dabilta burka astintzen. Zerbait herrialdetan leku publikoetan debekatzen eta beste zenbaitetan debekatzeko pausoak ematen.

Ez da gai erraza. Baina momentu batez nire irudimena lagun, burkaren barru aldera sartu naiz eta ondoren kanpoko aldera itzuli naiz. Sartu irten horretan baina, esaldi honetan kateatuta geratu naiz; eskubidea edo eskubideen zapalketa.

Emakumeek estali hau eramateak erlijioan du jatorria. Islamiarren tradizioan du oinarria. Beraz, nor gara gu emakume horiek burka ezin dutela eraman esateko? Akaso jendeak duen jantzeko moduaren inguruan badugu ezer esatekorik? Ez; inolaz ere. Nor gara gu ba emakume horiek beren sinismen eta ohiturak tarteko burka ezin dutela jantzi esateko? Inor ez.

Norbanakoak soinean dituen erlijio ikurrak, kapelak, blusak, zapiak... norbanakoaren eskubide dira. Hori bai; eskubide dira, norberak horrela izatea erabakitzen duen momentutik. Ez bestela. Eta hain zuzen ere hortxe dago burkaren ika-mika horretan nire zalantza eta kezka. Benetan emakume horiek guztiek eta banan bana bakoitzak erabaki ote du gorputz osoa estaltzen duen maindire beltz hori soinean eramatea? Euren

erabakia al da aurpegirik ez erakustea? Ez irribarrerik. Ez tristura keinurik.

Susmoa dut, kasurik gehienetan ez dela horrela gertatzen; halabeharrez baizik. Badirudi gortina beltzak emakumea ezkutatu nahi duela; ez balego bezala, existituko ez balitz bezala egiten du. Baina ez, hor barruan, bada emakumerik. Hor atzean bada bihotz bat, bada pentsamendu bat eta baita sentimendurik ere. Bada norbait. Nor, ordea? Nola besarkatzen da zapi beltz batez estalia dagoen laguna? Nola harreman-tzen da jendearekin? Alde guztietatik mugak dituelakoan nago. Hesi ilunak tapatzen du guztia.

Beraz eta eskubide kontuetara itzuliaz, erabakiaren jatorriak arduratzen nau. Eta jakina, aukeraketa horretan erabakitze eskubiderik egon ezean, ez nuke aurrez aipatutako esaldian kateatuta geratzeko motiborik; eskubidea edo eskubide zapalketa. Ez nuke zalantza izpirik izango.

Gainera, orain arte burka soinean erabili izan duen emakume batek, bat batean ez eramatea erabakitzen badu, zer? Edo hasiera hasieratik uko egiten badio, zer? Auskalo. Ez naiz erantzuteko gai; baina ideia bat egin nezake. Eta esango nuke, zapi beltz horrek, emakumearen irudiaz gain, beste kontu asko ere ezkututzen eta tapatzen dituela.



Jone Otxoa-Aizpurua
Abeslaria

Demagun lasai ederrean zabiltzala zure herrian pasiatzen eta bat batean, parez pare emakume bat burka soinean duela ikusten duzula. Alegia, gorputz osoa goitik behera maindire beltz batekin estalia du eta begien parean sare bat dauka; beste aldean gertatzen dena ikusteko. Hori ikusi ostean, behar bada ez zenuke horren lasai pasiatzen jarraituko. Niri behintzat, zapi beltz horrek zer pentsatua ematen dit; eta zorionez edo zoritxarrez, ez naiz bakarra.

“Ein eingou” Tolosaldetik Mallabira joateko ahalegina

Aurtengo UEMA Eguna ekainaren 12an egingo dute, Mallabian (Durangaldea), “Ein eingou” lelopean. Azken urteetan bezala, festa giroa izango da nagusi, eta, horretarako, egitarau oparoa prestatu dute Durangaldeko UEMAKo udalek.

Euskararen aldeko festak perretxikoak bezala ugaritzen ari dira, Euskal Herriko bazter guztietan: ikastolen aldeko jaiak, Euskararen Nazioarteko Eguna, Euskaraz Bizi Eguna... Horien artean, bada egun jakin bat udalerrri euskaldunetan oso errotuta dagoena: UEMA Eguna. Duela hogeitau urte baino gehiagotik egiten da, gune euskaldunetarako hizkuntz politika propioa aldarrikatzeko. Nolanahi ere, aldarrikapenak aldarrikapen, jai giroa izaten da nagusi.

Aurten, herri bakar batek bakarrik ez, eskualde oso batek hartu du UEMA Eguna antolatzekeo ardura. Durangaldeko UEMAKo udalerrriak lau dira (Atxondo, Otxandio,

Izurtza eta Mallabia), eta elkarrekin dabilta elkarlanean herritarren parte hartzea ahalik eta handiena izan dadin. Egitarau oparoa osatu dute, adin tarte guztientzat aproposa: umeentzat, ipuin kontalaria, puzgarriak, tailerak, jokoak...; gazteentzat, besteak beste, Xiba jokoak eta dantzaldia; eta guzti-guztientzat, herri bazkaria eta aparteko giroa.

Antolatzaileek nabarmendu dute udalerrri euskaldunak babesteko, bi gauza behar direla: Euskal Herriko udalerrri guztietan ofizial izendatuko duen araudia eta euskarari eta euskaldunon hizkuntz eskubideei babes osoa eskainiko dien legea. Helburu horiek lortzeko bidean, oso garrantzitsua izango da herritarrak euskararen alde aktibatzea eta UEMA indartzea, eta, horretarako, aukera polita duzue ekainaren 12an Mallabian.

Egitaraua

Ekainaren 9an, Durangoko Plateruena:

19:00etan, Paul Bilbaok hizkuntza eskubideen inguruko

tailerra eskainiko du.

Ekainaren 12an, Mallabian: Frontoian:

12:00etan Xabier Mendi-gureni bere ibilbideagatiko aitortza. Ostean mahai-ingurua, UEMA: hasierako bultza da eta lehen erakundetzea.

14:30ean bazkaria

Txartelak erosteko, Izurtza, Atxondo, Otxandio eta Mallabiko udaletxeetan edo UEMAKo bulegoetara deituta: Oartzun (943-26.03.72), Azpeitia (943-81.66.99) edo Aulesti (94-627.91.95).

Bazkaldu ostean denon artean, kantu saioa.

16:00etan umeentzako ipuin kontalaria, Lur Korta.

Mallabarreneko plazan eta Elizoste kalean:

11:30-13:30 eta 16:30-18:30 ume eta gaztetxoentzako jokoak (puzgarriak, tailerak, quad-ak...)


Herriko parkean:

12:00etan herrien arteko Xiba jokoak

Plazan:

18:00etan “Erlaxi” taldearekin dantzaldia 23:00etan “Damu dot” taldearen disko berriaren aurkezpena



Galtzaundi  10eko ekainak 4



Tolosaldeak presentzia handia izango du UEMA Egunean

UEMA Eguna Tolosaldeetik kanpo egingo bada ere, eskualdeak ordezkaritza zabala bidaliko du Mallabira. Udaltaldeak ordezkariez gain, UEMAren hastapenei buruzko mahai inguruan eskualdeko bi lagunek hartuko dute parte: Lizarteko Julian Zubeldiak eta Altzoko Xabier Olanok.

Horrez gain, eskualdetik xiba jokoetarako talde bat atera nahian dabilta. Xiba jokoak "herri olinpiadak" edo gin-kana moduko probak dira: sokatira, toka, lokotx bilketa, ingudea... Taldea osatzeko, zortzi lagun behar dira, lau mutil eta lau neska, eta ez da aparteko abilezia edo indarririk behar. Parte hartu nahi baduzue,

deitu UEMAren bulegora: 943260372.

Horrez gain, eskualdeko UEMAko udalek autobusa aterako dute. Autobusa goizean abiatuko da, eta bazkal ostean itzuliko. Herri bazkarrirako prezioa 20 eurokoa da, eta autobusa doan, UEMAko herritarrentzat. Autobusean eta bazkarian izena eman nahi baduzue, deitu eskualdeko UEMAko udaletara. Eskualdean, hauek dira UEMAren dauden udalerrak: Aduna, Anoeta, Irura, Elduain, Leaburu-Txarama, Belauntza, Oresa, Alegia, Ikaztegieta, Amezketeta, Baliarrain, Altzo, Oresa eta Orendain.

Kultur **ekitaldi**ak



Txilipurdika ludotekan izena emateko epea zabalik!

Eman izena lehenbailehen Galtzaundiko egoitzan Nafarroa Etorbidea 6, behea 943.65.50.04 kultura@galtzaundi.com



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

ANTZA



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostejeta kalea, 2 - Tolosa

Inoiz baino indartsuago, inoiz baino elkartuago

Eskola Txikiak hizpide izan dira azken urte honetan, batez ere Larraul, Itziar eta Zubietako kasuen berri iritsi zaigu komunikabideetatik. Isabel Ceelaren hezkuntza sailak entzungor egiten die irakasle guraso eta udalen eskaerei, eta hori gutxi balitz aurreko gobernuarekin hitzartutako gauza asko atzera bota dizkiete. Egoera zaila da, baina arazoaren aurrean eskola txikietako irakasle eta gurasoak inoiz baino indartsuago eta elkartuago sentitzen dira. Ilusio hori ekainaren 13an Altzon ospatuko den eskola txikien festan islatuko da. Festaren aitzakian mahai-inguruan bildu ditugu Mikel Olano (Altzoko Santilazpi guraso elkarteko lehendakaria), Mila Etxeberria (Imaz Bertsolaria eskolako zuzendaria), Ixabel Lakuntza (Eskola Txikietako Gipuzkoako Irakasleen koordinatzailea), Izaskun Karrera (Gipuzkoako gurasoen koordinakundearen lehendakaria) eta Ana Eizagirre (Euskal Herriko Eskola Publikoen guraso elkarteetako koordinatzailea).

Egiguzue Altzoko Imaz Bertsolaria Eskolaren aurkezpena

Mila Etxeberria: Aurten 59 ikasle eta hamar irakasle ditugu, tartean hezitzaile bat ere bai. Haur Hezkuntzan bi gela daude eta Lehen Hezkuntzan 5 gela. Eskola berria da gurea, eta ondorioz baliabide onak ditugu, bost ikasgelez gain, psikomotrizitate gela, jangela, liburutegia, informatika gela e.a. daudelarik. Zerbitzu aldetik, goizeko zaintza eskaintzen zaie gurasoei 07:30etatik 09:00ak arte. Jangela zerbitzua ere eskaintzen zaie; egunero 10 ikasle biltzen dira. Garraio ere badute; bi taxi ibiltzen dira egunero.

Gainontzeko eskola txikiak Altzoko eskolak adina baliabide dituzte egun?

Ixabel Lakuntza: Zerbitzu aldetik orokorrean horrela izaten da. Baliabideak aldiz oso ez-

berdinak dira batetik bestera. Altzok eskola berria dauka, eta oso oso ondo hornituta dago. Eskola guztiak ez daude egoera berdinean. Esango nuke eskola batzuk oso larri daudela, espazio falta izugarria dute edo eraikin zaharrak dituzte. Batzuk obrak onartuta dituzte, beste kasu batzuetan obrak egiteko baimena onartuta zegoen, baina atzera bota dituzte. Espazioaren arazoa oso larria da zenbait eskolaren kasuan.

Nola definituko zenukete eskolak herrian jokatzen duen papera?

Mikel Olano: Erabateko garrantzia dauka. Gure umeak herriko eskolara joatean dena hemen geratzen da. Batetik bestera ibiltzen dira haurrak eta horrek bizia ematen dio herriari. Eskolatik at, horrenbeste jardue- ra egiten dituzte, beti dagoela

zerbait. Herriari bizia ematen diona eskola dela esaten dut nik. Umeak dira egunerokotasunean arnasa eta poztasuna ematen dutenak.

Nolako urtea izan da?

M.O.: Hasieran kezka eta ar- dura handia sentitzen genituen. Irailean hasi ginen lanean. Koor- dinakundetik aurreko herrietako erreferentziak eman zizkiguten. Poliki-poliki batzordeak eratzen eta gauzak lantzen joan ginen. Lan asko izan da, bilera asko izan dira, baina nire ustez, oso gau- za polita ekarri du guzti horrek: herri osoa dago festaren antola- kuntzan sartuta. Hasieratik plan- teatu genuen herri osoak parte hartu behar zuela, eta orain arte behintzat, herri osoa aritu da lanean: gurasoak, ikasleak, irakas- leak, herriko elkarteak, udala... Jendea ardura handiarekin ari da lanean eta oso gustura gaude.

Eskola Txikien festa elkarrekin ondo pasatzeko ez ezik, aldarrikapenerako aitzakia izaten da. Aurten zer aldarrikatu nahi duzue bereziki?

Izaskun Karrera: Berez, festa- ren helburua ez da aldarrika- penen. Zoritxarrez, batzuetan aldarrikapenak egiteko erabili behar izan dugu, eta kasu hone- tan ere, eskola batzuen egoera zein den ikusita, zerbait egingo da. Baina helburua inoiz ez da izan hori. Helburua da, umeek, gurasoek eta irakasleek elkarre- kin egun bat pasatzea. Txikiak garenez, ematen du gutxi ga- rela, baina denak elkartzen ga- renean, ikusten duzu ez gara- la hain txikiak, kopuruz behintzat. Bestalde, Altzoko eskola, herria eta bertan egiten dena beste herriek eta eskolek ezagutzeko bidea ere ematen du jaiak.

Ana Eizagirre: Nire ustez, jai- a bera da aldarrikapen bat. Anto-

latzaileek, eta eskola txikietako kide guztiek euren artean dagoen giro hori normaltzat jotzen dute. Baina eskola txikien festara lehendabizikoz joaten zarenean berezitasun batzuetaz konturatzen zara: lehena da, mundu guztia sentitzen dela etxean, nahiz eta bizkaiko punta batetik Gipuzkoako beste puntara joan. Bestetik, oso argi ikusten da zer nolako lana egiten den eskola txikietan. Begi bistakoa da umeek festan daukaten protagonismoa, beti erakusten da urtean zehar egiten duten lana, zer nolako metodologiak aurrera eramaten diren, eta ikusten da, umeek zer nolako autonomia eta ekimena daukaten gauzak egiteko. Hezkuntzan oso modan daude orain hainbat irizpide: ikasleak izan behar duela subjektua, pertsonak pentsatzen duena adierazi behar duela. Lantzen diren kompetentzia guzti horiek erreflexu argia dute festan. Ni eskola txikietako festetan ez ezik, eskola publikoen bestelako festetan ere egon naiz, eta batez ere, eskola txikien jaietan islatzen dira egungo pedagogiak markatzen dituen kompetentzia eta baloreak. Egia da aldarrikapen berezi bat ez dagoela, baina hezkuntza sistemarako aldarrikatzen duguna hor dagoela ikusten dugu, eskola txikietan. Nire ustez, estamentu publikoetatik ez da hori baloratzen.

Helburua ez da aldarrikapena, baina eskola txikiek izango duzue zer aldarrikatu gaur egun...

I.K.: Nortasuna aldarrikatzen dugu. Publikoak garenez, parte

bezala sentitzen gara, ez gara ezberdinak. Sare publikoaren barruan gaude, baina ezberdintasun batzuekin. Bada, hori errespetatzea nahi dugu.

I.L.: Nik aldarrikatuko nuke existitzen garela. Nire sentsazioa da existituko ez bagina bezala tratatzen gaituztela. Gogorra da bilera batera joan eta eskola txikiak aipatu ere ez dituztela egiten ikustea. Eskola txikiak sarean lan egiten dugu, sistematikoki, era antolatuan eta gure ustez modu egokian. Eta hori ez da ikusi nahi eta ez da inondik inora baloratzen. Gure irudipena da ez garela mapan ikusten. Hori egoera orokorrari begiratuta. Arazo konkretuak dira Larraul, Zubieta eta Itziaroko eskolak. Zubietari Lehen Hezkuntzako ziklo bat kendu nahi diote eskolak seigarren mailara arte jarraitu ahal izatea eskatzen dutenean. Larraulek ebazpen bat dauka non eskola izaera aitortzen zaien, baina ebazpen hori ere atzera bota dute eta Haur Hezkuntzako bi gela desplazatu bezala izendatzen dute Larraulgo eskola. Itziarren ere antzeko zerbait gertatzen da: gela desplazatu bezala mantendu nahi dute, ez diote eskola izaera eman nahi, eta gainera, ziklo bat kendu nahi diote.

Ebazpen horiek aurreko gobernuko hezkuntza sailak emanak dira?

I.K.: Bai. Larraulek aurreko gobernuak emandako ebazpena zuen, baina gobernu berriak ez du ebazpen hori onartu nahi. Aurreko gobernuaren eta eskola txikien artean harremana zegoen. Batzorde bat ere sortu

genuen, baina egungo gobernuak hori ere kendu egin dugu.

A.E.: Duela bi legealdi proposatu genuen eskola txikiei estatus berezi bat aitortzea. Horretarako pauso batzuk eman ziren: tartean, aipatutako batzordea eratu zen. Ez hezkuntza sailarekin bakarrik, baita beste sail batzuekin ere, nekazaritzakoarekin esaterako, zeren eskola txikietan faktore askok parte hartzen dute. Sei bat urte daramatzagu Gasteizen lanean. Egia da, estatus hori formalki oraindik ez zegoela lortuta, baina hainbat pauso emanda genituen, eta lorpen batzuk ere erdietsi genituen, araudia eskola txikietara egokitzea esaterako. Urte betean hori dena alde batera geratu da. Hasieran esan ziguten euren ez zituztela zertan aurreko gobernuaren irizpideak eduki behar. Kontua da ez dutela beste irizpiderik erakusten. Birritan deitu gaituzte irakasleen egoeraz informatzeko eta beste bitan gurasoak informatzeko. Informatu egiten dute, eta ez negoziatu. Urtea nahiko gogorra izan da eskola txikientzat. Eskolak mantentzen badira eta aurrera egiten badute, guraso, irakasle eta herrietako udalek egiten duten lanarengatik da. Kalitatea ez dator administrazioetik, egiten den lanetik baizik. Beraz, alde horretatik ez dugu atzera pausorik eman. Eskola txikietatik institutueta joaten direnek izugarrizko maila ematen dute. Horrek esan nahi du metodologia egokiak ematen direla aurrera eskola txikietan, nahiz eta administrazioak hori ez baloratu.

I.L.: Hain zuzen ere, metodo-

logia horiek gure metodologia propioak dira, beste eskola publikoen metodologiek balio ez digutelako. Egokitu egin behar dugu nahitanahiez. Suertez, bide egokia bilatu dugu, eta ezaugarri horiek abantaila bezala bizitzen ditugu.

Estatus berezia errekonozitzea nahi duzue egoera bereziak ematen direlako... Adibide bat jarriko zenuketue?

I.L.: Aipatu dugun batzorde hori osatu zenean han aztertzen ziren egoera bereziak. Adibidez, zortzi unitatetik gora dituzten eskolek kontsultore bat izango zutela aipatu zuten. Eskola Txiki gehienak zortzi unitate baino gutxiago ditugu; horregatik ez dugu kontsultorerik behar? Batzorde horretan erabaki zen kontsultoreak konpartitzea: hamar eskola txikirentzako hiru kontsultore jarri ziren. Hori akta hartan jaso zen, baina estatus berezi bezala kontsideratuak egongo bagina, berezitasun guzti horiek hor aitortuta egongo liriteke. Baina ez dago horrelakorik. Gaur iritsi dira eskola txikietara RPT-ak, alegia, lanpostuen zerrendak, eta kontsultore guztiak kendu dizkigute. Gu araudi eta lege guztietatik ateratzen gara, araudi horiek egitean ez gaituztelako kontutan hartzen. Guk ibili behar dugu belarritik tiraka, araudia eskola txikietara nola egokituko den galdezka.

A.E.: Badirudi, dibertsitatea koloretik bakarrik datorrela, eta aniztasuna etorkinek ekartzen dutela. Baina dibertsoak pertsonak gara. Irakaskuntzan, dibertsitatea pertsonen artean, eskolen artean, herrien artean

ematen da. Asko hitz egiten da dibertsitateaz, baina gero dibertsitate hori ez da errekonozitzen. Administrazioak oso zentralizatuta du dena, eta zentralizazio horretan, eskola txikiak beti galtzen ateratzen dira. Eskola bakoitzari bere kasa lanean utzita askoz ere emaitza hobek emango lituztekete. Eskola txikiek autonomia behar dute, beharrezko baliabideekin lagunduta noski.

Eskola Txikiak orain artean lortutakoa galtzeko arriskuan ikusten duzue?

I.L.: Guk batzordea eskatzen jarraituko dugu, eta borroka horretan batera jarraituko dugu. Baina egoera zaila da. Harremana hotza da. Hezkuntza sailak burua beste nonbait dauka. Baina hor egongo gara gu, belarritik tiraka. Eguneroko lanean jarraituko dugu. Irakasleok eta gurasook ilusioz egiten dugu lan. Ez dugu ezer bertan behera utzi, ezta utziko ere. Ez gaude etsita.

A.E.: Indarra herrian dago eta ez administrazioan. Noski, indar horrek administrazioaren laguntza edukiko balu, ba askoz ere hobe.

M.O.: Nik uste dut, indar hori igo egin dela. Arazoaren aurrean sekula baino elkartuago eta indartsuago sentitzen gara. Gainera, medio guztietan atera dira eskola txikiak, kalean gaude.

Noizko espero duzue Hezkuntza Sailaren erantzuna? Eta zer egingo duzue zuek erantzun horren aurrean?

A.E.: Ekaina hasierarako espero dugu erantzuna. Hez-

kuntza sailak pentsatu behar du gurasoak edozer gauza egiteko prest daudela euren umeak herrian bertan ikas dezaten. Eztabaida hau hiru herri-tatik eraman da legebiltzarrera. Talde parlamentario guztiak ados agertu dira eskola txikiak indartzearekin. Hezkuntza saila bakarrik geratu da. Zentzu horretan, berehala erantzun bat eman behar digute.

I.K.: Koordinakundearen alde-tik argi daukagu hiru ikastetxe horietaz hitz egiten ari bagara beraiek eskatu dutelako dela; zeren eta hiru eskola horien atzetik beste eskola mordoa dago, behar larriak dituztenak baina isilik daudenak hiru eskola hauei lehentasuna emateko. Hiru kasu hauek eztabaidatzea lortzen dugunean, hauen atzean dauden eskolen alde borrokatzen jarraituko dugu.

A.E.: Askok hitzartuta zituzten eskola berritzeko lanak, horietako batzuk gainera dagoeneko eginda behar lukete, eta oraindik eta gehiago atzeratu dituzte.

Zein mezu emango zenieke beraz Hezkuntza Sailari eta gizar-teari?

I.K.: Irailean ikasleak hor egongo direla. Aipatutako hiru

herrietako eskola horietan ikasleak orain arte bezala jarraituko dutela herrian ikasten. Larraulen esaterako lehen hezkuntzako 1. mailako ikasle bat egongo da, eta Itziarren eta Zubietan 3. maila zabalduko dute, 1. eta 2. mailetako ikasgelak mantentzeaz gain. Gurasoek batzarrak egin dituzte eta sinatu egin dute hori egin nahi dutela. Ez Larraulgo Itziariko eta Zubietako gurasoek bakarrik, eskola txikietako guraso guztiak ehuneko ehuneko babestu dute jarrera hori. Konpromisoa erabatekoa da.

Zer prestatu duzue ekainaren 13rako? Nola gonbidatuko zenituzkete irakurleak?

M.O.: Goizeko 10:00etatik gaueko 22:00ak arte festa egongo dela, eta Altzok bere altzoan hartuko zaituztela.

I.K.: Ekainaren 13ko festa garai bateko herri txikitako festen antzekoa izango da. Galdu dugun hori, hemen mantendu egiten dela erakutsiko dugu.

A.E.: Eremu erdalduneko jendea ere gonbidatu nahi dugu, egun bat euskaraz pasatzeko modua baita, giro ederrean gainera. ☺



Ekainaren 7tik 13ra hiru elementu horiek ezkonduko dira Zerkausian lekutuko den Illargi Coupage ekimenean

Gastronomia, sormena et

Ez da bisiguaren festa, ezta txuletarena ere. Illargi Coupage asteak gastronomia du abiapuntu, baina jatearen plazerretik harago joan nahi du: sukaldaritzaren eta enologiaren inguruan, aisialdia, plazerra eta hezkuntza eskaintzen duen egitaraua prestatu dute. Sukalde tradizionalaren teknikak erabiliz, sormen eta kultura dosi handiko mokaduak izango dira hiru solairutan eta bost guneetan banatu duten Zerkausian.

afari eta bazkariak emango dituzte, non bazkaltiar eta afaltiarrek dastatzen dutenaren inguruko hitzaldiak izango diren. Era eta jatorri guztietako jakiak prestatuko dituzte otorduetan: kabiara, ostra-k, gozoak, plater turkiarrak, foie, bakailua, munduko haragi ezberdinak (txuleta, bisontea, antilopea, pitoi haragia...) edota postre tradizionalak. Plater guztiak sukaldaritza tradizionalaren teknikekin egingo dira, baina ohiko zapore eta sentrazioak hausteko eran elaboratuko dituzte. Aipatutako jakiekin batera, kultur adierazpen ezberdinak ere ekarriko dituzte munduko txoko ezberdinetatik. Era honetan, jazz-a, diseinua, moda, pintura eta argazkigintzak girotuko dute Zerkausia.

Erredakzioa


Illargi Delicatessen-ek, Tolosa-ko Udala, Tolosaldea Tour, Tolosaldea Garatzen eta Tolosa Gourmet-en laguntzaz antolatu du aste berezi hau. Antolatzaileen asmoa ez da ohiko aste gastronomiko bat antolatzea. "Ekimen hau menu original bat dastatzeaz gain, ikasi egin nahi duen pertsona ororentzat dago zuzenduta" adierazi dute. Era honetan, mila eta bat zapore eta hamaika sentrazio sortaraziko dituen programa da esku artean duguna:

Alde batetik, Rioja, Rivera de Duero, Navarra eta Alsacia jatorri izendapenetako ardo aukeraketa zabala eskainiko da egunero egingo diren ardo dastaketetan. Ostegunetik igandera bitartean

Zerkausia, hiru solairu eta bost gune

Tolosako Zerkausia txuleta, bisigu edota bildotsaren erretegi erraldoia bihurtu izan da. Bada, oraingo honetan Zerkausia jantoki, erakusketa areto, ardotegi, pintxo eskaintza anitzeko barra eta kafetxo bat hartzeko terraza izango da aldi berean. Egitarauak dakartzan ekintza guztiei lekua emateko hiru solairutan eta bost gune ezberdinetan banatu dute Zerkausia.

Beheko solairuan, enbarkaderoan, bazkari eta afariak emateko jantokia (1. gunea) eta erakusketa aretoa (2. gunea) atonduko dituzte. Lehen solairuan, ardo dastaketa zirkuituak egiteko gune zabala (3. gunea) gorde dute.



ta kultura Zerkausion

Bigarren solairuko azalera, teilatua bi gunetan banatuko dute: 4. guneak munduko ardoen eta pintxo anitzen pasarela hartuko du; 5. gunean berriz, chill-out terraza egongo da.

Bazkari eta afarietarako erreserbak Tolosaldea Tour-en bulegoan egin beharko dira. Otorduen ostean, Chill-out terrazara igotzeko aukera izango dute afaltarriek, bertan kafe italiarraz eta gustuko kopaz gozatzeko. Horretarako, afariaren txartelarekin batera kontsumiziorako tiket-a emango zaie bezeroei. Chill-out terraza eta ardo zein pintxo pasarelak zabalik egongo dira herritar guztientzat. Kontsumitutakoa espreski ateratako tiket-en bidez ordainduko da. Tiket hauek, Zerkausion bertan jarriko den postuan izango dira eskuragai.

Coupage egunez egun

Ekainak 7, astelehenarekin batera abiatuko da astea. 3. gunean ardo kata zirkuitua egingo da. 18:00etan, Errioxako "Horizonte" bodegako arduradunak bere ardoei buruzko hitzaldia emango du eta ondoren ardoak dastatu ahal izango dira. 19:30ean, jatorri bereko "Luis Cañas" bodegaren txanda izango da, honek dastaketa gidatua eskainiko duelarik.

Hilaren 8an, asteartez, Angel Loma eta Jose Luis Hernaez-ek Alsaciako ardoei buruzko hitzaldia eskainiko dute 18:00etatik aurrera. Ardoak dastatzeko aukera ere izango da, noski. 19:30ean "Pierola" bodegak hartuko du



egitaraurekin jarraitzeko ardurara. Bere ardoekin batera, Mikel Lasak eskainitako gazta dastatu ahal izango da. 20:00etan azkenik, Iñaki Arratibel kirol medikuak "elikadura osasuntsuaren plazerra" hitzaldia eskainiko du.

Asteazkenean, ekainaren 9an, 19:00etan, ardo kata txapelketa izango da.

Ostegunean, hilaren 10ean zabalduko da jantokia. Afal aurretik ordea, 19:00etan Kabiarraren ekoizpenari buruzko hitzaldia eta dastaketa egingo dute vodkaekin lagunduta. 19:30ean Ostrak jan ahal izango dira cava gozoarekin batera. 20:00etan munduko cava ezberdinei buruzko hitzaldia izango da. 21:00etan "Afari gozoa" izenarekin bataiatu duten menua eskainiko da jantokian.

Asteburu sarreran, ekainaren 11.ean, afari turkiarra prestatuko dute 21:00etatik aurrera eskaintzeko. 5. gunean, 19:00etatik 22:30etara, munduko ardoen eta pintxo pasarela egongo da za-

balik. 18:00etan, Chill-out terraza irekiko dute 4. gunean, kafe italiarra eta era guztietako likoreak eskainiko direlarik.

Hilak 12, larunbata, 14:00etan aperitibo, sarrerako eta postre ezberdinez osatutako menua eskainiko zaie bazkaltzarrei. 21:00etan gauza bera egingo da afaltzarrekin, "nada es lo que parece" izenez bataiatu duten menuarekin. 5. gunean, 11:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 22:30etara ardoen eta pintxo pasarela bezeroen zerbitzura egongo da. 4. gunean, Chill-out terraza egongo da 18:00etatik aurrera.

Astearekin amaitzeko, ekainaren 12an, egun horretarako prestatu duten bazkaria eskainiko dute 14:00etatik aurrera. 11:00etatik 15:00etara aurreko egunetan bezala, zabalik izango da pasarela. Chill-out terraza 17:00etatik 19:00ak arte egongo da zabalik egun honetan.

Badakizue, on egin eta asko ikasi.

Beti Nahi
galtzaundi

Garaian garaiko janariak eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Ikasturte berritik aurrera Galtzaundi Euskara Taldeak koordinatuko du Mintzalaguna proiektua

Mintzalaguna, euskaltegi

14

Euskaraz ikasten ari direnek euskaltegitik kanpo euskaraz hitz egiteko aukera izan dezaten sortu zen Mintzalaguna proiektua. Tolosan hiru urte daramatza egitasmoak martxan. Aitzol Udal Euskaltegiak Tolosako Udaleko Euskara Batzordearen laguntzaz kudeatu du zerbitzua, baina irailetik aurrera, Galtzaundi Euskara Taldeak hartuko du bere gain Mintzalaguna egitasmoaren koordinazioa.

Erredakzioa

Tolosan Mintzalaguna egitasmoa martxan jarri zenean eman zuen izena Carmenek. Miriam eta Estixurentzat bigarren ikasturtea izan da hau. Euskaraz bizi ahal izateko bidean oso lagungarria gertatu zaie egitasmoa. Bai beraiei eta baita hiztunei edo "mintzalagunei" ere. "Beraiek ikasi egiten dute gurekin, baina guk beraiekin ere bai", ziurtatu du Idoiak. Euskaldun zaharra den arren, euskaltegira joaten da eguneroko errutinak galduarazitako euskara berreskuratu eta freskatzera. "Irakasle batek eman zidan Mintzalaguna proiektuaren berri. Euskara ikasten ari direnekin astero ordu bezetaz geratu eta euskaraz hitz egitea beste ezer ez zela egin behar eta, ea animatuko nintzen galdetu zidan. Halaxe hasi nintzen

ikasturte hasieran". Gemmak aldiz hiru ikasturte daramatza hiztun moduan. Bere mintzalagunak Carmen eta Miriam dira. Estixu beste talde batean dago, baita Idoia ere. Normalean hiru mintzalaguneko taldeak egiten dira: euskaldun zahar bat (hiztuna) eta euskaraz ikasi nahi duten bi ikasle. Guztira hamar talde daude Tolosan.

Talde bat, mundu bat

Carmen eta Miriamen hiztuna Gemma da duela bi urtetatik. "Normalean taldeak aldatu egiten dituzte, baina guk bigarren ikasturtea dugu hau", dio Gemmak. Astero egun, ordu eta leku berean egiten dute hiztordua: "Asteazkenetan arratsaldeko 17:30ean elkartzen gara beti, eta beti joaten gara kafetegi berera".



tik kalerako zubia

Idoia ere egun eta ordu berean elkartzeko da bere taldekideekin, "baina guk planak aldatu egiten ditugu nire taldekideen egoeraren arabera. Batzuetan umeak ekartzeko dituzte eta parketan egoten gara, bestetan berriz kafetegian zerbait hartzen...". Estixuren taldeak aldiz ez du egun finkorik. "Guk egunez aldatzen dugu, beharrendu arabera, bakoitzak bere bizitza, bere lana eta bere ordutegiak izaten baititu". Talde bakoitza ahal duen bezala moldatzen da. "Taldea bakoitza mundu bat da" diote beraiek.

Lotsa kentzeko


Elkartu, kafegira joan, eseri eta bakoitzak bere kafea aurrean duela euskaraz hitz egitea. Hori dena egiten dute, baina era inkontziente batean. "Hau da, ez gara zertaz hitz egingo dugun pentsatzen jartzen; hizketan hasten gara eta kito! Beti izaten dugu zer kontatu", dio Gemmak. Mintzalaguna ordu betez euskaraz hitz egiteko konpromisoa baino zerbait gehiago da. Estitxuk dioen moduan, "mintzalaguna lagun bilakatzen da azkenean; aste-oro ordu horretatik kanpo ere geratzen gara, telefonoz elkarri deitzen diogu... Inoiz ez dugu ordu bat pasatzen euskaraz hizketan, beti gehiago izaten da". "Denok hitz egiten dugu gure bizitzaz, gure arazoez...

Harremana estutzen joaten da eta konfidantza sortzen da", gehitu du Idoiak. Beraz, jende berria ezagutu eta lagunak egiteko bidea ere bada Mintzalaguna.

Baina Mintzalagunak, bereziki, euskaraz hitz egiteko lotsa uxatzen laguntzen du. "Lehen euskaraz arrotza zen niretzat; orain ez. Lehen lotsa ematen zidan kalean euskaraz hitz egitea, baina Mintzalagunak lotsa hori kentzen laguntzen ditu", kontatu du Estitxuk. Azken batean, euskaldun berriei konfidantzako testuinguru batean euskaraz hitz egiteak autokonfidantza eta ziurtasuna ematen die. Noski, pertsona guztiak ez gara berdinak eta batzuk besteek baino geldoago egiten dute bidea: "Niri oraindik ere lotsa ematen dit euskaraz hitz egitea, akatsen bat egingo duzula uste duzulako. Baina Gemmarekin eta Miriamenkin hitz egiterako garaian ez dut lotsarik izaten, lasai aritzen naiz", gaineratu du Carmenek. "Finean lasaiago egoten dira esaten duten gutzia luparekin begiratuko duen pertsonik ez badago. Bestela ere nahikoa analizatzen dute beraiek esan behar dutena", aipatu du Gemmak. Azpimarragarria da, hitzunak ez direla irakasleak, mintzakide soilak baizik. "Guri ez dagokigu inori zuzentzea. Beraiek galdetzen badigute


ahal badugu lagundu egiten diegu, baina beste ezer ez. Gainera, euskaldun berriei guk baino zuzenago hitz egiten dute askotan. Nik asko ikasi dut beraiekin, eta asko lagundu didate euskaraz berreskuratzeko ahaleginean", borobildu nahi izan du Idoiak. Bestalde, Mintzalagunak ohiturak haustea dakar askotan: Carmen eta Miriamek euskaltegitik kanpo ezagutzen dute elkar. Beraien artean erdaraz hitz egitea ohituta daude, baina ekimen honekin, gutxienez astean behin ordu betez euskaraz aritzen dira. "Behartuta gaudenez euskaraz hitz egiten dugu, eta batzuetan, indarririk badugu behintzat, asteroko hitzordutik kanpo euskaraz egiten saiatzen gara".

Laburtuz, Mintzalaguna euskaltegiaren eta kalearen arteko zubi moduko bat da. "Euskaltegitik kalera salto handia dago", ziurtatu dute, eta batzuk ez dira salto hori ematera ausartzen. Gure mintzalagunek azaldu diguten moduan, jauzi hori egiteko tranpolin bikaina da Mintzalaguna.

Irailean, kurtso berriarekin batera jarriko da martxan Mintzalaguna egitasmoaren berri emango duen kanpaina. Jauzi egin nahi duzuenok edota jauzi hori egin dezaten lagundu nahi duzuenok adi egon zaitetzete beraz. 



Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa



Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

euskararen semaforoa
euskararen semaforoa
blogspot.com

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

Yurre Ugarte

“Nire abiapuntua errealitatea da beti, baina errealitate horretan pertsonaiei aukerak ematea gustatzen zait”

Yurre Ugarte Tolosatik Irunera joan zen duela urte batzuk. Nahiz eta Tolosara ahal duen guztietan etortzen den, bertan egiten du bizitza, eta bertako paisaiak eta lekuak islatu ditu bere lehen narrazio liburuan, “Gasolindegian”. Kazetaritzako karrera Londresen burutu zituen Zinema eta Bideo ikasketekin tartekatuz. Ondoren gidoigintzan sartu zen bete-betean. ETB, Tele 5, Telemadrid eta TV3 kateentzako telesailak idatzi ditu, eta laburmetraiaren bat edo beste ere egin du. Hala beharrak gidoiak idazteko zereginetik aldendu zuen Yurre duela lau urte inguru. Egoera horrek, beste era batera idaztera bultzatu zuen, pantailarentzat idatzi beharrean, zuzen zuzenean irakurlearentzat idazteari ekin zion. Eraitza esku artean daukagu. Errealitatea makurra bada ere itzuli bat eman dezake; ondorio hori atera dezakegu Yurreren esperientziatik, eta plazaratu berri duen “Gasolindegian” liburutik.

Zer dela eta pantaila ahaztu eta helburua testua bera duen idazketa egiteko beharra?

Duela lau urte antzezlanen produkzioan sartu nintzen, eta ordura arte lanbide bezala nekana, pantailarako idaztea, alderatu egin nuen. Idaztearekin zerikusirik ez zeukan zerbait zen. Orduan erabaki nuen, bat-batean ezin niola idazteari utzi, eta horrela hasi nintzen etxean ideiak eta pertsonaiak lantzen. Horrekin batera, gidoi-proiektuak garatzen joan naiz urte horietan zehar. Momentu honetan, marrazki-bizidunen luzemetraia bat eta telesail batekin nabil lanean. Egia da, parentesi horrek literaturara bultzatu ninduela, baina bestalde erabaki kontziente bat izan zen: gogoia neukan testuari berari eusteko pantaila erabat ahaztuz. Liberazio moduko bat izan da. Azken urteetan nire proiektu batzuk ez ziren aurrera atera, eta nekatuta nengoen interesatzen ez zitzaizkidan telesailetan idazteaz. Pentsatu nuen une egokia zela idazten hasteko.

Zer idatzi nahi zenuen argi zeinukan?

Emaitzarekin pentsatu gabe hasi nintzen idazten. Hori bai, pertsonaiaren eta istorioaren ideia argi neukan. Banekien zer idatzi eta nola. Ipuintxo batekin hasi nintzen, gero beste bat idatzi nuen, eta pertsonaia garatzen joan nintzen. Hori izan zen hasieratik nire asmoa. Tripetatik atera zait dena, gogo handia nuelako. Askatasun osoz idatzi dut.

Ezberdintasun handia dago gidoiak idaztearen eta ipuinak sortzearen artean?



“ Tripetatik atera zait dena, gogo handia nuelako. Askatasun osoz idatzi dut.”

Oso ezberdinak dira. Gidoi bati jarrera espresiboa pantailaratzen duenak ematen dio. Literaturan jarrera espresiboa testuan erreflexatu behar du idazleak. Niretzat oso gustagarria izan da, agian gauzak oso argi nituelako eta askatasun osoz idatzi dudalako, nik nahi nuen bezala.

Liburua kalean da. Zer nolako harreara jaso duzu?

Aurkezpena egin eta bi egunen buruan mezu bat bidali zidaten facebook bidez, jakinarazteko, ni ezagutzen ez nauten Zarauzko Garoa liburudendakoek bideo bat egin zutela nire liburuarekin. Liburua auto baten gainean jarri eta gasolindegia batera nola abiatzen diren ikusten da bideoan. Youtuben eta liburudendako facebook-eko horman jarri zuten ikusgai bideoa, eta irudi artxiboarekin batera “irakurtzen baduzu depositoa beteko dizu” jartzen zuen. Liburua aurkeztu eta bi egunera izan zen hori! Niretzat asko esan nahi du horrek. Bideo bat egin eta zintzi-

likatu egin dute! Horrek ez dauka preziorik. Berrian ere kritika ona idatzi zuten liburuaz, eta oraingoz jaso ditudan iritziak gustagarriak izan dira. Fed-back azkarra eta ona izan dut!

Narrazio liburu gisa aurkeztu da liburua, baina iruditu zaigu narrazioez osatutako nobela dela. Nola definituko zenuke?

Editoreak definitu zuen aurkezpenean: ipuinez osatutako nobela. Ni ados nago definizio horrekin. Baina norbaitek esaten badit zazpi ipuin direla, ados nengoke baita ere. Zazpi ipuin idaztea asko da niretzat. Gainera, ipuin bakoitzak bere nortasuna dauka; ipuin bakoitzean mundutxo bat islatzen da. Egia da ere, hari batek lotzen dituela ipuinak. Hari hori oso nabarmena da batzuetan eta ikusezina besteetan. Definizioa berdin zait.

Ipuin guztien abiapuntua leku bat da: gasolindegia. Zergatik gasolindegia?

Irunen badago gasolindegi

bat, oso leku sugerentean kokatua. Atzean moja konbentu bat du, baratzez inguratuta dago eta bi palmondo ditu aurrean. Leku horrek gauza asko iradokitzen zizkidan. Abiapuntua leku erreala hori izan dela uste dut. Gero, gasolindegi horretan fikziozko pertsonaia bat kokatu dut. Protagonistak gasolindegian lan egin behar zuela izan zen hasierako erabakia, garrantzitsua, eta hortik etorri zen dena. Bestalde, gasolindegian lan egiten duen pertsona bat ezagutu nuen, eta hain arraroa egin zitzaidan pertsona horrek gasolindegi batean lan egitea? Tira, edozer izan daiteke abiapuntua, baita anekdota bat ere. Nire kasuan bi elementu horiek eraman ninduten gasolindegira.

Eleberriko protagonista arte ederretan lizentziatua da, baina gasolindegian egiten du lan. Gizarteak ez dagokigun lekura nola eramaten gaituen hausnartu nahi izan duzu?

Hori islatu egin nahi izan dut.

Nire abiapuntua beti errealiatea da. Gero, errealitate hori nora eramaten dudan beste gauza bat da. Ez dagokion tokian dagoen bati buruz da liburua. Hori hain ohikoa da gaur egun... Egoera horrek barne gatazka eta inguruarekiko gatazka sortzen dio pertsonari. Egoera hori oso aberatsa da idazteko, eta gainera oso erreala iruditzen zait. Horrekin batera, arlo sortzaile bateko pertsona lan ez-sortzaile edo mekaniko batean kokatu nahi izan dut. Gai horrek ere askorako ematen du, ez da asko ukitu, eta uste dut gehiagorako ere emango didala. Liburua amaitu nuenean, Oiartzungo gasolindegira joan nintzen. Gasolina ordaintzen ari nintzela, bertako langilearekin hasi nintzen hiz-

ketan. Hara non, arte ederretan lizentziatua zela kontatu zidan! Pentsatu nuen anekdota horrekin zirkulu bat ixten zela.

Oso erreala da baita ere eleberriko bigarren pertsonaia, Claudiu, etorkina. Agian oso erreala ez dena INEMeko bulego batean maitasuna sortzea da...

Etorkina ere ez dagokion lekuan dagoen beste pertsona bat da, desplazatua. Horrelakoak barra-barra daude. Gaur egungo gizartearen ezaugarri bat da, eta akatsak atera beharrean, etekina atera behar diogu, halaberharrez, bestela ezin da aurrera egin. Errealitatea da abiapuntua, bai, baina errealiatea horretan pertsonaiei aukerak ematea gustatzen zait.

Pertsonaia arruntak dira baina oso muturreko egoeretara eramaten dituzu. Hori da zuretzat errealiatari aukerak ematea?

Nik adierazi nahi nuena zera da: agian zure errealiatea oso makurra da, agian ez zaude dagokizun lekuan, baina egoera horrek berak beste egoera batera eramane zaitzake.

Baina batzuetan errealitatearen muga gainditu eta surrealismoa egiten duzu...

Errealitate horretan bertan posible diren muturreko egoera batzuk planteatzen ditut. Agian ez dira arruntak, ez dira ohikoak, baina eleberrian planteatu ditudan egoerak ematea posible da. Mundutxo bat sortu dut. Eguneroko errealitatea eta fantasia bat egin ditut, eta irakurlea ur horietan murgitzea nahi nuke.

Bi pertsonaia nagusiak ez ezik, bada beste pertsonaia bat oso garrantzitsua dena: konkorduna. Zer irudikatu nahi izan duzu pertsonaia honekin?

Konkorduna leienda baten modukoa da. Oso gutxi ikusten dira. Batetik, kontakizunari misterioa ematen dio; bestetik, konkordun bat baldin badago edozer gauza gertatu daitekeela dirudi. Fantasiari oso lotuta dagoen pertsonaia da konkorduna, errealitate haratago dagoen figura bat ematen du.

Zer eragin nahi zenion irakurleari istorio hauekin?

Ipuina artefakto magiko bat bezalakoa da niretzat. Pentsatu nahi dut, irakurlea sartzen dela zazpi ipuin horietan eta ipuin bakoitzak bizitzeko gogoia em-

Agian zure errealiatea oso makurra da, agian ez zaude dagokizun lekuan, baina egoera horrek berak beste egoera batera eramane zaitzake.

ten diola. Ipuinotan errealitate makur batetik abiatzen banaiz ere, gauzak gertatzen dira, tartean gauza onak. Ez dira deprimenteak, edo ez dut hala planteatu behintzat. Badaude liburu onak baina ez zaizkidanak interesatzen nigan eraginik izan ez dutelako. Nik ez dut bilatzen berpiztuko nauen istorio bat, baina bai aurrera jarraitzeko gogoia emango didan istorio bat. Nire liburuak norbaitengan zerbait pizten badu, gustura nengo.

Gidoigintzari dagokionez, zer daukazu orain esku artean?

Marrakzi-bizidunetako gidoidi bat idazten ari naiz. Euskal mitologiari itzuli bat eman diogu. Besteak beste, lamia izan nahi ez duen lamia bat eta umeak jan beharrean begetariano den Tartalo daude. Pertsonaia mitologikoei beste ikuspegi bat eman nahi diegu. Istorioa nik idatzi dut, eta marrazkilari berri batzuekin ari naiz lanean. Bestetik, telesail baterako ideia bat garatzen nabil. Eta bien bitartean, hurrengo liburu baterako ideiak hartzen ari naiz.

Beraz, literaturaren plazan jarraitzeko asmoa duzu?

Bai. Apunteak hartzen ari naiz. Ea zer ateratzen den.



“ Ez dagokion tokian dagoen bati buruz da liburua”.



Iosu Iztueta
Bidaiaia

Ekainaren 13an Eskola Txikien Festa izango da Altzon. Altzoko herria bi gunez osatua dago: Altzo Azpi eta Altzo Muino, azken hau da egun pasarako aukeratutako lekua eta hemen azaltzen dena bertara oinez iristeko bidea.

dugu topo, kotxez aurrerago dauden baserri pare batera iristeko bidea da.

Azpikaldeko etxe berrituan ez dirudi egunero inor bizi denik, gaikaldekoan bai, zaldi eta behor batzuk ere gustura dabilta larran. Guk aurrera egingo dugu karabana baten aldamenetik zuzen hartuta, pago gazteak alde batera, garbitzen ari diren pinudia bestera, iturri eta aska handi bat ere bai bide bazterrean. Gutxira, aurrez aurre langa berde bat, han ezkerretara malda handian goitik behera segi ondoren, lartza baserria, ederki konpondua. Hantxetik Altzo Muino ikusteko aukera lehen aldiz (ordubete pasatxo eman dugu Tolosatik).

GI-3072 eta GI-3620 bidegurutza ailegatu gara hemen, eskuinera hartuko dugu asfalto bazterretik eta Fraile Karmeliten frontoi estalira iritsiko gara, duela 40 urte, inguruko herrietako pilotazaleen inbidia zen Altzo, bi frontoi alajaina, bat hau eta bestea 1967 goian eraikia. Gaur egun pilotalekuko giltza beheko Zuaznabar Berri baserrian eskatzen da, Zuaznabar Goena (Fraile etxea) eta beharaxego Zuaznabar Barrena eta Zuaznabar Handi... ederki zaindutako baratza, fruta arbolak eta belazeak etxe jiran.

GI-3071 errepidea da STOP seinale parean topatuko duzuna,

hartu kontuz-kontuz Alegi aldera eta segi 600 metro beherantz, eskuinera Leku Alai izeneko etxea parean pasa ondoren ezkerretara nabarmen azaltzen da Ipintza baserria, gatozen errepidetik 100 metro daude. Aurrez aurre egingo duzu topo Altzoko Erraldoiaren eskulturarekin, (Juanito Lopek 1968an egina da egiazko neurriak errespetatuz). Migel Joakin Elizegiren sortetxean gaude, hezur-hargizko gizaseme hura 2.42 metroko altuera izatera iritsi zen, Europan barrena ere erakutsi zuten euskal erraldoia, Altzo herria ezaguna egin zuen gizona bera dela esan daiteke, hementxe zendu zen 1861ean tuberkulosiak jota.

Parez pare, han goian dauzkagu zain, lehen aipatutako pilotalekua, inon falta ez den eliza eta bien artean eraikitako eskola berria. Mendizabal baserri aldamenetik ordu laurden bat nahikoa izan dugu Ipintzatik hona etortzeko. Aurtengo "eskola txikien" festa handia erraldoia izan liteke, bertara etorritako jendearen buru gainetik bat nabarmenduko da, egun pasa ona izan.

Gaur egun, Tolosaldean badira herri txikiak non errepidea plazan bertan amaitzen den: Gaztelu, Orexa, Hernialde... Herrixka gehienetara ailegatzeko bi bide daude: Alkiza, Albiztur, Belauntza... Baina Tolosaldean gutxi dira kotxez hiru errepide ezberdinetatik iristeko aukera ematen duten herriak, Altzo horietako bat da: Txaramatik, Altzo Azpitik eta Alegiako errota paretik igo liteke 220 m altueran dagoen herri kaxkora.

Tolosako Amarotz auzotik abiatuko gara, Nafarroako bide zaharretik. Ollaun izenez ezagutzen den tontorrean telebista antena jarri zenetik (duela 45 urte inguru), "repetidore" bezala bataiatua geratu zen mendi hau. Guk hara gora doan asfaltozko kamioa har-

tuko dugu, bota berri duten Amarotz papeleraren parean eskuinetik. Donejakue Bideko seinale hori bat begi aurrean izango dugu, aldapa pikoa da, %20koa gutxi gorabehera, 500 metro eginda, altuera pixka bat hartuta, betiko "tximinia" somatzen da faltan... hainbeste urtetan hain famatu egin zen tutu bertikala!

Aurrerago bidegurutze hirukoitza dago, zeharka eskuinera eta zuzenean aurrera doazenak utzi eta ezkerretara hartuko dugu, lurrezko bidea da, zelaia hasieran, malda txikia ondoren eta berriro ordeka. Pinudiak, hariztiak, sagastiak, belardiak... denetarik, lasai-lasai joanda ordu laurden egin eta gero, eskuinetik, goitik behera datorren errepide batekin egingo



Fernando eta bere garaiko Amezketari dio izenburu Jose Mari Oterminek bere azken lanari, eta irakurlea, liburua esku artean hartu orduko jabetuko da izenburu horren egokitasunaz. Fernando beraren bizitzaz gain, bertsolari amezketarrak ezagutu zuen Amezqueta deskribatu du Oterminek, begirada han eta hemen jarritz, garai hartako eguneroko bizimoduaren kronika zabala eginez.

Amaia Goikoetxea

Amezketar bat F

1750etik 1830era bitarteko testuinguruan kokatu du Oterminek Fernando. «Esaterako, Fernandok oso berri ezagutu zuen udaletxe hau, baita herriko eliza ere. Hildakoak elizan lurperatetik kanpoan lurperatzera pasa ziren garaia bizi izan zuen, eta herrira eskolak ematera maisu tituluduna nola ekarri zuten ere ikusi zuen», azaldu zuen idazleak liburua- ren aurkezpenean.


Har dezagun, esaterako, tabernen kontua. Oterminek kontatzen duenez, Fernando jaio zen urtean (1764) hiru taberna omen zeuden Amezketan: bata Arritzagan, eta gainerako biak, Kontseju (udaletxe) zahar eta berrian, Plazan. Herriko agintariek Kontseju berrikoa enkantera atera zuten; Antonio Arizmendirena izan omen zen eskaintzarik onena, eta beraz, hark hartu zuen taberna. Arizmendik berrogei dukat ordaindu beharko zituen urtero, baita beste hainbat baldintza bete ere: besteak beste, kontseju zaharreko prezio berean

eman beharko zuen ardo nafarra, hauteskunde egunetan parte hartzen zuten herritarrei bazkaria eman beharko zien, eta gosaria eta bazkaria kontu emate egunean parte hartzen zutenei.

Eta tabernetan zer egiten zuen jendeak garai hartan? Tertulian aritu, kartaketan jokatu, bertsotan egin, eta nola ez, zurrutari eman, Oterminek dioenez, zenbait garaitan gogotik gainera; ondorioz, ohikoak izaten ziren sesio eta liskarrak bertan zirenen artean. Eta edan, zer? Bada, ardo nafarra, pattarra eta mistela. Alkatearen aginduz gaueko 9etarako tabernak eta plaza hustu behar zirela gaineratzen du idazleak, baita sarritan agindu hori bete gabe geratzen zela ere.

'Omen' hori...

Bi arrazoi nagusik bultzata hasi zen Jose Mari Otermin Fernando Amezketarrari buruzko liburua idazten. «Batetik, XX. mendean Amezketarentzat marketing ikurrik zaba-



Fernando Amezketarri buruz

lena, errazena eta oparoena Fernando izan zelako. Bestetik, Fernandoren bizitzan soberan dagoen hitz bat kentzen saiatzeko, 'omen' hitza hain zuzen ere». Askok entzuna izango dute, esaterako, Fernando aran mordoan jan eta atzetik ura edateagatik hil omen zela; bada 'omen' horiek kendu eta Fernando bere onera ekartzen saiatu da kazetari eta idazle amezketarra.

Esate baterako, Fernandoren jaiotetxeari dagokiona. "Ehun urte eman ditugu, ustez, Fernando Espilla-saletxe etxean jaio zela esaten", dio liburuan Oterminek. Bere ustez, ordea, ez da, orain arte behintzat, hori baieztatuko duen daturik aurkitu. "Askotan saiatu naiz horretan, baina kale egin dut. Litekeena da, baina ez dago oinarririk. Zalantza egiten dut", dio. Bere hipotesia beste bat da. Dionenez, 1890 aldera hasi omen ziren Fernandoren ateraldiak bolo bolo zabaltzen. Garai hartan Espilla-saletxen bizi omen zen Karlos Bengoe-

txea, Fernandoren bilobetako bat, eta Oterminen ustez, hori da Fernando Espilla-saletxen jaio zela pentsatzera eraman gaituena. "Ez dut erabat ukatzen, baina gaur gaurkoz ez dago daturik horri eusteko. Norbaitek bestelakorik ekartzen badu, onartzeko ez dut arazorik izango. Gogotik poz-tuko naiz", dio.

Fenandok aita Adunakoa zuen; ama, berriz, Amezketakoa. Eta Oterminek dioenez, beti izan da Fernandoren jatorria Adunan ikusi nahi izan duen norbait. Jesus Amundarain Adunako erretore izanak idatzita utzitakoa jartzen du adibide moduan idazleak: "Noticias de 4 personajes de Aduna, o muy relacionados con ella: Fernando de Bengoechea (Aduna tar Amezketarra)...". Oterminen iritziz, ordea, uste horrek ez du zentzu handirik, "gauza jakina baita Fernandok Amezketartzat zeukala bere burua". Hasteko, bere buruaren berri eman zuen aldioro Amezketarra zela aitortu zuen

beti. Horrez gain, Fernandok Sendotzako sakramentua Amezketan hartu zueneko agiria ere aurkezten du Oterminek. "Ez dago lekurik Fernandoren jatorriaz zalantzarik izateko. Amezketan jaio zen, Amezketan hartu zuen Sendotza, Amezketan ezkondu zen, Amezketan eman zuen azken arnasa eta amezketartzat zeukan bere burua. Zer gehiago behar da? Utikan behin betirako zalantza guztiak", dio liburuan.

Pobrea, ez arlotea

Behin liburuia idatzita, Fernandori hiru adjektibo jarriko lizkioke Oterminek. Batetik, pobrea. «Herriko bilera nagusietan ondasunen bat zuten herritarrek biltzen ziren, eta Fernando ez da horietako bakar batean ere agertzen». Pobrea bai, baina ez arlotea. «Inoiz ez zuen bere etxerik izan, maizter ibili zen, baina ehun buruko artaldea izatera iritsi zen». Eta azkenik, burutsua. Eta hain zuzen ere, bere

buruargitasuna izan liteke Fernando gureganaino iritsi izanaren arrazoietariko bat. «Herri xeheak asko maite zuen Fernando, bere buruargitasunarekin bat egiten zuen. Horrez gain, garaiko euskaltzaleek ere asko estimatzen zuten: R. M. Azkue, Orkaiztegi parrokoa, Serafio Mugika, Gregorio Mugika, Karmelo Etxegarai.».

Esan bezala, Fernandoren bizitzatik 'omen' hitza kendu nahi izan du Jose Marik, eta horretarako, hari buruz esandakoetatik egia zer zen eta zer ez zen argitzeko, dokumentazio lan mardula egin du. Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, Donostiako Elizbarrutikora eta Tolosako Udal Artxibora jo du batez ere, baina hainbat kasutarako Artxibo Nazionala eta Valladolideko ere bisitatu ditu. «Ez dakizue zer nolako ilusioa egiten zidan paper batean Fernando de Bengoechea ikusteak», aitortu zuen. «Liburu hau idazten oso ondo pasa dut, zenbait unetan hunkitu ere egin naiz».

Anoetar gazteak Gipuzkoako x

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan emaitza bikainak bildu dituzte Anoetako xake jokalariek. Besteak beste, emakumezkoetan anoetar bat izan da Barakaldon ospatu berri den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan Gipuzkoako ordezkaria. Xake txokoak bi ikasturte daramatza lanean, eta denbora labur horretan punta-puntako xakelariak ondu ditu. Zein da horren denbora laburrean halako emaitzak biltzeko gakoa? Xake txokoko koordinatzaileak argi du erantzuna: Udala, Ikastola eta gurasoen inplikazioa dago atzean.

Erredakzioa

Ezin uka Anoeta herri xake zalea denik. Anoetarrek betidanik izan dute xakerako afizioa. Zaletasun hori gaztetxoaren artean ere zabaldu da xake txokoa martxan jarri zenetik. Lagun giroan xakean jokatzeko aukera ematen du Jone-k gidatzen duen ekimen honen. Astero-astero udal aretoan elkartzeko dira jokalaria. Bigarren ikasturtea amaitzera doaz, eta

sortu zenetik hona gora eta gora egin du bertako bazkide txartel kopuruak. Egun 65 bat bazkide daudela azaldu du txokoko arduradunak: "Familia bakoitzeko bazkide txartel bat egiten da. Beraz, nahikoa da kuota bat ordaintzea familiako kide guztiek parte hartzeko. Horrek esan nahi du, 65 lagun baino gehiago direla astero ez bada noiz edo noiz xakean jo-



katzera hurbiltzen direnak". Etxeko gazteenak hasi ziren hasieran xake txokora hurbiltzen, gerora gurasoak animatu ziren eta egun aitona-amonak ere hurbiltzen dira. Familia giroan egoten dira beraz.

Gipuzkoako eskolartekoan bikain

Kantitatea bakarrik ez, kalitatea ere badago xake txokoa. Anoetako Ikastolako xake jokalariek Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan lortutako emaitza onek frogatzen dute hori. "Bakarka leihatzeraz bost ikasle joan ziren; mutil alebin batek brontzezko domina lortu zuen eta nesketan berriz, Anoetako alebin batek Euskal

Herriko Eskolarteko Txapelketan Gipuzkoa ordezkatzeko txartela lortu zuen. Taldekako leihaketan sei alebinen parte hartu zuten eta urrezko domina Anoetara ekarzteaz lortu zuten".

Nola liteke bi urteko prestakuntzarekin halako maila lortzea? Jonek dio, hori guztia ez litzatekeela posible izango Udala, Ikastola eta gurasoen inplikaziorik gabe. "Udalak hasieratik bultzatu du xake txokoa. Horretaz gain, ikastaroak eman ditugu, iraila eta Aste Santuetan xakean aritzeko mahaiak jartzen dira kalean eta Ikastolan ere xakea lantzen da. Xakea presente dago herrian, eta



Xakelari onenen artean

presente dago familietan". Hori da gakoa.

Kutxa Txapelketa Anoetan

Anoetan xakea hain bizi ego-teak txapelketen antolatzaileak eta xake jokalariek erakartzen ditu. Horrela, maiatzaren 15-16 eta 22-23 asteburuetan Kutxa Xake Txapelketako sailkapen probak jokatu ziren Anoetako Kiroldegian. Ibarra-Tolosa Xake Kluba aritu da antolatzaile lanetan. 45 xakelari bildu ziren guztira. Dena ondo irten zela eta probak giro ederrean egin zirela kontatu du Jonek. Kutxa Txapelketako finala ekainaren 13an jokatu da. Oraindik ez dakite non.


Finala jokatu eta aste baten buruan, ekainaren 19an, beste ekitaldi garrantzitsu bat izango dute Anoetako xakelariak: Xake

Txokoko Festa. Bertan lagunarteko txapelketa bat jokatzen dute, leihak eragiten duten tentsioak ahaztuta helburua ondo pasatzea delarik. Haurrek, aita-amek eta aiton-amonek denek parte hartuko dute. Eguna merienda handi batekin borobilduko dute.

Festetako pregoilari

Egindako lanarengatik, Anoetako Festa Batzordeak aurten goi-jaietako suziria piztu eta pregoia irakurtzeko ohorea eman diete xake jokalariei. Ilusio handiz hartu zuten albistea, eta keinua eskertzeko ahalik eta ondoen landu zuten pregoian helarazi beharreko mezua: "xakearekin bezala, kultura eta kirolaren bitartez errespetuan oinarritutako harremanak izatea posible dela helarazi nahi izan genuen. Denak ez gauden




arren, festak ondo pasatzea opatu eta xakean jokatzerari animatu ez direnak animatu genituen". Orain herriko jaiak gozatzen ari dira xakelariak. Baliatu ditzatela jai hauek ikasturtean zehar lortutako guztia ospatzeko. 

ZETA^SI

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219



ARTE TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

uztailean goiz eta arratsalde irekita.
Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Jarri publikitate

Galtzaundi aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6. 20400 Tolosa
Tel. 943 655 004
publizitatea@galtzaundi.com
www.galtzaundi.com

irakurri entzun Ikusi

Xahmaran Jon Arretxe

Xahmaran, bi buruko sugea (emakumearena bata eta sugearena bestea), ugalkortasunaren jainkosa, Kurdistango hainbat etxetako hormetan ikus daitekeen izaki mitologikoa, abiapuntutzat hartzen du Jon Arretxek azken eleberrri honetan. Istanbul eta Munich dira nobelaren kokalekuak eta, batetik bestera bidaiatzeaz gain, familia oso baten bidaia kontatzen du.



Goizalde Surrealistak Surfin Kaos

Inoiz baino freskotasun eta heldutasun handiagoarekin aurkitzen da Surfin Kaos taldea. Jarrera horren ispi-lu da talde donostiarraren lan berria. Psikodelia, rock and roll, surf eta hard rock ukitu berriak sartu dituzte "Goizalde Surrealistak" labetik atera berri duten diskoan. Taldearen laugarren lana da hau eta Brian's Records disketxearekin plazaratu ondoren salgai dago ohiko salmenta puntuetan



Rabia Sebastián Cordero

Espainia eta Mexikon ekoiztutako thriller erromantiko honek bi etorkin hegoamerikarren istorioa kontatzen digu. Bi protagonistak bikote dira: batek igeltsero gisa egiten du lan, bigarrena neskamea da. Espainian bizi diren bi etorkinen istorioa da kontatzen duguna.



Ekainaren 4tik 18ra arteko hitzorduak

Erakusketa

Aranburu jauregia

- Ekainaren 12ra arte: Nisa Goibururen "Y aun asi, somos naturaleza" erakusketa.
- Ekainaren 12ra arte: Adolfo Tannenbalum-en argazki erakusketa.

GKO Gallery

- Ekainaren 13ra: "Carnet de boyage buelta de Chile" erakusketa

Musika

Bonberenea

- Ekainak 5: Dinero eta Zain taldeen kontzertua 22:30etatik aurrera.
- Ekainak 17: Nothink talde madrildarraren zuzenekoia 22:30etatik aurrera.

Tolosako Lizardi elkartearen eguna

- Ekainak 6: Ibilaldia Lizardiko oroitarria: goizeko 10:00etan irteeran Triangulo plazatik. 11:00etan Lizardiren poesia erreztaldia Urkizuko magalean. Ondoren hamaiketako eta eguerdian bazkaria Lizardi elkartearen.

Illargi Coupage

Zerkausia

- Ekainaren 7tik 13ra: ardo kaktak, bazkari eta afariak, hitzaldiak, erakusketak, pintxo eta ardo pasarelak, chill-out terraza... egunez egun.

Eskola Txikien festa

Altzo

- Ekainak 13: 10:30; harrera ekitaldia herriko plazan. 11:30; haur jolasak eskola eta frontoian. 13:30; lekukoa eskuz aldatzea. 14:30; Bazkaria. Katering-a frontoian eta bazkaria etxetik dartenak plazako karpan. 16:30; Pirritx eta Porrotx pailazoak herriko plazan. 19:00; Lain taldea herriko plazan. 20:30; bertsolariak herriko plazan. Festari agurra. 21:00; Oinazez erromeria taldea 22:00ak arte.

Tolosa Beantatuz Graffiti eta Mural leihaketa

GKO Gallery

- Ekainak 18 eta 19: sua gaiaren inguruan edozein teknika dela medio 20 mural egiteko aukera emango dute 16:00etatik aurre-

ra. Gehienera 20 parte hartzaile (taldeka) hartuko dira, denak 17 urtetik gorakoak. Izen ematea aldeztu aurretik egin beharko da GKO Galleryn.



Anoetako jaiak 2010

Ekainak 4

- 10:00: XII. eskuzko pilota herri txapelketa. finalak. udal pilota eskolak antolatutik.
- 11:00: Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa plazan, Alkartasuna elkarteak antolatutik.
- 16:30: Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin
- 18:00: Ume eta helduen play-back plazan.
- 22:30: Anoetako dantza taldearen ikuskizuna kiroldegian, Loatzoko musikariez lagundurik.
- 00:00: kontzertua plazan; Ze esatek eta Bizardunak.

Ekainak 5: gazteen eguna

- 11:00: Herri lasterketa ume, gazte eta helduentzat. plazatik abiatuko da.
- 12:30: Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- 15:30: Mus txapelketa, Ateaga



elkarteak antolatuturik.

-16:30: Txirrindulari lasterke-
ta, Oriako txirrindulari eskolak
antolatuturik (alebin eta infantil
mailakoak).

-17:30: Judoko emanaldia kirol-
degian

-18:00: Gazteen kalejira dantza
eginez.

-19:00: Sagardo dastaketa, txo-
rizo egosia eta gazta pintxo-
ekin, Kuku elkarteak antolatuturik.

-21:00: Herri afaria frontoian.

-23:30: Gazteen dantza plazan.
-ondoren, Laket erromeria tal-
dea plazan.

ekainak 6:

-11:00: Gorritiren festibala: ze-
zentxoak eta ponyak plazan.

-11:00: Paleta txapelketako
finalak frontoian, Kuku pilota
elkarteak antolatuturik.

-12:00: Buruhandi eta erral-
doien kalejira herriko txistula-
riekin.

-17:30: Herri kirolak: arozetxea
ondoko belazezan. Alkiza eta
Anoeta arteko apustua.

-ondoren, Kupela erromeria
taldea 20:30ak arte plazan. .

-23:00: Kupela erromeria taldea
plazan.

-24:00: Zezen suzkoa eta ku-
kuaren igoera kanpandorrera
ondoren, Kupela erromeria tal-
dearen jarraipena.

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazago da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbizuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgu-
nean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan
zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

| Ikastaroaren izena | Hasiera data | Ordu Kopurua |
|---|--------------|--------------|
| Sare sozialak | 2010/06/08 | 2 |
| Internet + e-administrazioa | 2010/06/14 | 20 |
| GPSa erabiltzeko oinarriko kontzeptuak | 2010/06/21 | 12 |
| GIMP I eta II | 2010/06/28 | 8 |
| Cycling; Pilates; Multifitness; etabar. | 2010/07/01 | 10 |

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Teléfonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 4

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Larunbata, 5

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Igandea, 6

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Astelehena, 7

Ugarte M^aT.
Euskal Herria, 46
Ibarra

Astearte, 8

Azpiroz L.
Amaroz 9
Tolosa

Asteazkena, 9

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Osteguna, 10

Olarreaga J.
(Korroo kalea, 2)
Tolosa

Ostirala, 11

Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa

Larunbata, 12

Bronte C.
(korroo kalea 20)
Tolosa

Igandea, 13

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Astelehena, 14

Ugarte M^aT.
Euskal Herria, 46
Ibarra

Astearte, 15

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Asteazkena, 16

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Osteguna, 17


Olarreaga J.
(Korroo kalea, 2)
Tolosa

Ostirala, 18

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Telefono interesgarriak

| | | |
|--|----------------------------|-------------|
| Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur | Gernikako Arbola,hitzor | 943 006 900 |
| Osasun zentroa | Amarozko dispensarioa | 943 672 637 |
| Altzo | Asunzion klinika | 943 675 799 |
| Medikua | (larrialdiak) | 943 675 390 |
| Anoeta-Alkiza-Hernalde | San Kosme San Damian | |
| Medikua | geriatrikoa | 943 672 932 |
| Baliarrain | Udaltzaingoa | 943 675 858 |
| Medikua | Ur eta Argia (Tolargi) | 943 650 016 |
| | Ur zerbiztuak (aberiak) | 639 352 156 |
| Berastegi-Elduain | lurreamendi egoitza | 943 670 325 |
| Medikua | Larrialdiak, Suhiltzaileak | 112 |
| Bidegoian | DYA | 943 672 536 |
| Medikua | Gurutze Gorria | 943 674 888 |
| Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu | | 943 651 425 |
| Osasun etxea | Ertzantza | 943 673 022 |
| Ikaztegieta | Tolosa Gasa | 943 675 320 |
| Medikua | Lizartza | |
| Irura | Medikua | 943 682 077 |
| Osasun zentroa | Orendain | |
| Tolosa | Medikua | 943 655 595 |
| Anbulatorioa, larriald. | Orexa | |
| San Esteban, hitzordua | Medikua | 943 682 228 |

Galtzaundi  10eko ekainak 4



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA



Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratu ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644.453.621

• Ingelesko klaseak ematen dira, barka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.160.268

Etxebizitza

• Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645.718.536

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616.278.843

• "Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125"

• Etxebizitza abuhardilatua salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitsua eta bista onak. 685.765.855

Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678.923.512

• Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605.717.858

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

Horoskopoa

Ekainaren 4tik 18ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Zure gaitasun eta kapazitatez oso ziur zaude, baina denok ditugu ahuleziak eta noizbat erori egin zaitezke. Hori kontutan hartzea komeni zaizu, bestela hartuko duzun kolpea handia izango da. Barruak garbitzeko beharra duzu. Garbi jan.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Eguraldi onak aldartea aldatuko dizu. Bereziki abegikor egongo zara. Bola-da honi probetxua atera eta oparitu bat egin beharko zenioke, izugarri poztuko du. Zorteko egongo zara.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Arazoak ahoa itxita eduki behar denean irekitzeagatik. Horrela ikasiko duzu. Bestalde, une goxoak igaroko dituzu zure bikotekidearekin. Maiteminduta sentituko zara.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Presa eta ongi egindako lana ez dira bateragarriak. Hobe duzu lehentasunak markatu eta egiten duzun hori ondo egitea. Etxean aldatetako egiteko une egokia. Dekorazio aldatetako batek zu ere aldatu egingo zaitu.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Diru sarrera batek estuasun ekonomikotik aterako zaitu. Berritua horrelako egoera batean aurki ez zaitezte gastuak murriztu beharko zenituzke. Lan-kideak bai, baina zeure burua ezin duzu engainatu. Aitortu errua eta kitto!



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Pertsona bat ezagutuko duzu eta aspaldiko partez zita bat hitzartu. Alferrik da ispilu aurrean entsaiatzen ibiltzea. Izan zaitez zaren bezalakoa, eta baliatu zure enkantoz. Pasa gabe noski!



libra

Irailak 23-Urriak 22

Lanpetuta zabilta, estresaren atea gurutzatu duzu jada. Saia zaitez egoera ongi kudeatzen, eta hemendik ateratzen bazara satisfakzio izugarria sentituko duzu, hilabeteetarako barne bakea emango dizuna.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Ez dagokizu zuri etxeko arazo guztiak konpontzea, baina oraingo honetan zure beharrea egongo dira. Laguntzen badiezu arazo bat gehitu beharko diozu zure zerrenda luzeari, eta laguntzen ez badiezu era bai. Zuk ikusi.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Momentu onak igaroko dituzu hurrengo asteetan, batez ere lagunartean. Aspaldiko parrandirik onenak eta luzeak egingo dituzu. Kontu izan! Dagoeneko ez zara astebururo kalimotxo litroka edaten zuen gaztetxo hura!



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Inoiz ez duzu pentsatzen guri gerta dakigunik, baina gerta dakigu eta zuri ere gertatuko zaizu kontu gehiagorekin gidatzen ez baduzu. Bestalde, itxi ondo etxeko atea, lapurrak sartzea ere gerta liteke eta. Ez duzu zorterik izango.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Nahi baduzu egin dezakezu! Beti beskeen iritziak menpe ibiltzen zara. Oraingo honetan zeure plana aurrera eramane beharko zenuke, garai ona da, eta proiektua aurrera eramateko irrika horrekin soilik ondo atera ditekete. Animo!



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Irudituko zaizu mundua dagoela zurekin hasarre, baina zu egongo zara munduarekin haserra. Araza zuk daukazul eta ez besteek onartzen ez duzun bitartean, umore txar horrekin jarraituko duzu, zu eta zure ingurukoak gogaitzen.





A P A I N D E G I A

Ileko kolorea eman ez gero
ezpainetako bat opari!

Korreoa kalea, 60 - 20400 Tolosa
Telf. 943 116 456

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 387



AMAIA ETXEXIPIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888



harria gresak

25 urte zure bainugela janzten
Neurrira egindako bainugelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com

#Gipuzkoa

lan munduratzea

herrilan eta azpiegiturak



teknologia eta berrikuntza

enpresei laguntzea

Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, enplegua sortzea eta gure enpresei laguntzea, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa dela medio.

OBRA PUBLIKOA ETA AZPIEGITURAK

Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde osoak ahalmen handiko bide-sare ezin hobea izan dezan.

ENPRESEI LAGUNTZEA

Estualditik ateratzeko, berregituratzeko eta proiektu lehiakorak sustatzeko neurriak bideratzea.

ENPLEGUA SORTZEA

Lan-munduan sartzen laguntzea zailtasun bereziak dituzten taldeei eta enpresetako gizarte-balioak sustatzea.

TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Zientzia eta teknologiako azpiegiturak garatzea eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea, merkatu globalean lehiakortasun handiagoa izateko.



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



IES Hernani BHI

A. Iturriaga-K.Labaka



Aurrematrikula: maiatzak 31 – ekainak 11



Elektrizitatea

- Instalazio Elektriko eta automatikoak (Erdi Maila)
- Telekomunikazioa (Erdi Maila)
- Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

Mekanika

- Mekanizazioa (Erdi Maila)
- Fabrikazio Mekanikako Diseinua (Goi Maila)

Lanbide Hastapenak - PCPI

- Operario/a de Mecanizado
- Auxiliar de actividades domésticas y cuidados básicos a personas dependientes

Santa Barbara auzoa, zg. Tfnoa: 943-551188
K. Labaka, 7. Tfnoa: 943-551958

www.hernanibhi.com – e-mail: institutua@hernanibhi.com